

bidegileak



Etienne Salaberri (1903-1981)

Egilea:


PIERRE AINZIART

«

M

Heletako erroak

endeak ba zituen hiru urte; urteak bi ilabete; ilabeteak zortzi egun, egunak bortz oren sortu zelarik Heleta Garran muttiko bat, ahul xuhail eta nigartsu. Haurtto hori ni naiz, omen.» Honela hasten da 1976ko *Gure Herria* bi hileroko bigarren zenbakiko artikulua bat «Ene Sinestea» tituluarekin eta «Garrako seme» azpтитuluarekin. Bi urte barne titulu berarekin agertuko du Etien Salaberrik lekukotasun autobiografikoa idatzi duena. Erdara frantsesezateratzen ziren ordu haietan *Ce que je crois* izenburua zeukaten liburuak.



Etienne Salaberri (1903-1981)

Aipatua dugun aldizkarian Etienne Salaberrik, luzaz, bere familiaren historia egiten du. Amaren izena dator lehenik: Pollina, gero lehen haurrarena, Maii-Luixa, Anderegeia. Bigarren haurra, gure Etien. Bien artean izan zen Josefin arreba, urte bat bizi ezin ahal zuena. Azken haurridea, Ameli, gaur Donibane

Lohizunen bizi dena, 96 urterekin. Garra etxe handi eta aberatsa zen jada eta aspalditik izen ospetsua zeukan. Etienek kondatzen ditu bere aitatxi Santiagoren etxe erosketak, Heleta Garreta auzoan, gehituz *Donostiri-Donomartirin* erosiko dituenak. Oguzt ama Pollinaren anaia gazteak behar zuen aitaren ondoko izan, baina gazte-gazterik Bestaberriko elizkizunean, banderari zela, hotzak harturik, hil zen. Nork hartu beraz aitaren segida? Hona zer dion Etienek: «Nagusi gaztea, edo aita jin zen Garralat, Heleta Iturburutik. Izena Manex».

Ez dugu ahanzten ahal hemen 1736an sortu Santiago Garra de Salagoity apeza, hidrogra-

fian aditu famatua, arbaso ospetsua: ez zen guti harro Salaberri senidetasun historiko horretaz. Dio bereziki Santiago hori gisa batez Enziklopedista zela, bere *Eléments de la Science du navigateur* obra ezagutua baitzen, bereziki Bordalen eta Tolosan. Enziklopedista, bai beraz, baina ere apeza eta hona zer dion Etienek hemen: «Barda, tamp, jin zaita gogorat Pariseko *Encyclopédistes* fede gaben, eta *Los Caballeritos de Azcoitia* deitu Encyclopedista fededunen arteko zubia ditakeela Jacques Garra de Salagoity Heletako apeza». Hurbilketa horrek ez du berdin, egiazkoa izanikan ere, garrantzi handirik hemen: Etienen izpirtua dago hemen, arima eta garbiki erraiteko, bihotza, bihotz sentimentala.



Bizia eta obrak

Bizia eta obrak, Etien Salaberrirenak, bat, erran dezakegu. Baxenabarre edo Nafarroa Behereko herri bat dagoen Heletako eskolan da lehenik eta laster apaiz egiteko erabakia harturik, ikasketak Bellokeko ikastegian egiten ditu, Uztaritzeko Seminario Ttipia Frantses Estaduak hartua baitzuen eta 1929an apaiztuko da, Baionako Seminario handian bururaturik formazioa. Apezpikuak segidan igortzen du Okzitaniako Tolosan dagoen

Instituto Katolikora, filosofi ikasketak egiteko. Eta hemen ohar bat segidan: ontsalaz Etienek Erromara joan behar zuen, beste apaiz gazte batzuk bezala, teologia lantzeko. «Nik ezetz, ene xedea litakela filosofiaren barnatzea» (*Ene Sinestea*). Berak erraiten hautu mota hori ezohikoa zela.

Tolosan bi urte barne filosofia-lizentzia airez aire erdiesten du, itzuli beharko zaiolarik berehala Uztaritzeko Seminario Ttipira, filosofi erakasle gisa, 1931n. Artean egona zen bi



Etien ttipia, sortetxearen aurrean, aita eta ama eta Josefin eta Ameli arrebeekin



«Iragan biziari gibeletik beha» *Ene sinestea* liburuan



Salaberriren testamendua: *Beñat adiskidea, agur!*

urte hurbil soldaduska egin beharrez, Alemaniako Rhin ibaiaren zaintzale: hori zen jaki xehe bat, konparatuz, gero, bost urtez, erresuma berean preso gisa eraman, eta jasan, egonaldiari. Ez du sekula ahantziko gerlaren denborako esperientzia. Guda ondotik hona berriz Etien Uztaritzen, soldaduen artean atzo, ikasleen aitzinean orain, filosofo, 1958 arte. Apezpikuak igortzen du orduan Baionan antolatu berria den *Villa-Pia* lizeora, buruzagi-

tzan arduradun bezala: uko egiten dio kargu pisuegiari, nahiago duelarik betiko erakaskuntzan ari izan eta hori 1973 arte, erretiratuz orduan. Baina ez da geldirik egonen, bereziki idatziz eta idatziz ari baita. Baina unatua da Etien, etsitua. Eri. Sufrimenduak gaina harturik, nahi du bakean sartu: 1981eko uztailaren 22a zen.

Erakasle izaiteaz gain kazetaria da Etien Salaberri, Piarres Lafittek galdeginik, gerla

biharamunean, eta 1946tik 1981 arte, bi aste zendu aitzin, astero idatziko ditu *Herria* astekarian, euskarazko artikulua *So egile* izenpe-tuz, geroxago, erdarazkoak, bere izenezkoak *Tribune libre du Prisonnier* lehenik, *Pointes sèches* gero tituluekin. Ez ditu ahanzten preso ohi lagunak eta haien aldizkaria: *Le lien*. Ez eta bere ideologiko kazeta den *L'Eclair* demokris-tauna. *Gure Herria* bihilerokoan ere idatzi ditu artikulua luzeak, goimailako erdara bate-an, hala nola: «L'homme basque», «L'aliénation basque» etabar. Aldizkari berean irakurtzeko-ak dira Etienen olerkiak, azkena *Herria* asteka-rian idatzia, eta urrunago aipatzekoa.

Eta liburuak: lehenik aipatua dugun *Ene sines-tea* 1978an agerrarazia eta gero zenbait hila-bete zendu aitzin idatzia: *Beñat adiskidea agur*. Hau da Etien Salaberriren testamendua. Beñaten bidez, beste guzietan mintzo da, iduriz, bakardadea eta sufrimendua esperantza bor-titz batekin gaindituz.



Herria astekarian asko idatzi zuen

Filosofia irakasle

Etien Salaberri filosofia-erakasle, bai, baina filosofo ere, erraiten ahal dugu. Ohartu gara nahi izan zuela Tolosara joan, filosofoen bidea hartu nahiz eta ez Erromara, teologoen egia ikasteko. Hautu horrek erran ote nahi du bereizketa bat badagoela bi irakasgaien arte-an, Etienentzat? Goizegi auzia mozteko eta zer nahi gisaz gainbegirada bat baizik egin izanen da hemen eta laburzki. Baina problema ezinbestekoa da: apaiz bat filosofi erakasle, zer da hori? Edo nor da, hobeki erraiteko? Fededun bat nahitaez. Etienek bururadino



Ikastaldia ematen 54-55 ikasturtean

bere fedea, aitamena funtsean, atxiki du: garbi-ki errana da hori 1978ko *Ene Sinestea*-n. Segidan entzutekoa da Etienek bere liburua-ren 188garren orrialdean idatzia: «Filosofia egina da sinestearen garbitzeko bere pusketa-rik, ez sinestearen husteko bere mamitik».

Horiek hola arrazoiak bere lana bere ere-muan darama. Salaberrirekin ibilalditxo bat eginen dugu, aipatu liburua hostokatuz, oroi-tuz ere 1965ean *Jakin* taldeak *Filosofiaren kon-daira* liburuan agertu zuen Etien Salaberrik idatzi artikulua: «Henri Bergson». Filosofo honetaz mintzatu aitzin, Salaberriren pentsa-menduaren oinarritzko printzipioaz oroitu behar da: Jainkoa lehen, sinestea gogamena-ren nagusi. Latinez erraiten da: «Crede ut intelligas». Sinetsi, ulertzeko. Manu horretatik dator Etienen filosofia. Eta lehenik kondena-k: hiru arerio aipatuko ditugu: Marx, Nietzsche eta Freud. Lehena, materialista, ateo, beraz etsaia, baina Beñat adiskideari erraiten dio: «Ikusi dik fededunak gibelka eta ezazol ginau-dela frangotan behardunen alderat». Nietzsche, etsai handiagoa berdin, fedea fededuna ahul eta uzkur bilakatzen baitu eta filosofoak Jainkoaren heriotza nahi. Freudi buruz baluke Salaberrik sinpatia doi bat, berari hastio bai-tzaio Descartesen razionalismoa, baina na-hasten ditu psikanalistak «libido, lohikeria edo lizunkeria». Beharrik hor dago Bergson. Artetik erraiteko, Etien Salaberriren hitz nagusiak eta betan indar-ideiak hauexek dira: Bergson, Europa eta gero, gero ta gehiago, Euskal Herria.

Zergatik ba Bergson? Izpiritualista delakotz. «Henri Bergson izan da ene gaztetasunaren iguzkia.» Hain zuen maite bere Bergson non Etienen zaldiari *Bergson* goitizena emana zio-ten Uztaritzeko ikasleek. Bi hitzez bilduz amo-diozko eta razionaltasunezko atxikimendu hori, erran dezagun preseski Descartesetik aski urrun dagoela, Etien Salaberriren iritziz, Bergson. Lehenak adimena dauka tresna ego-kia egia aurkitzeko, bigarrenak asmoa, intui-zioa. Adimenak gauzak analizatzen ditu, asmo-ak aldiz barnea barnetik ulertzen, denbora senditzen eta azaltzen, halako orokortasun bero batean. Zer egin dute zientifikoek, bere-ziki hemeretzigarren mendean? Gizakia zati-katu, objektu bilakaturik. Filosofia eta zuhur-tziaren ordez «Jakitake nagusiak: fisika, kimia, biologia» eraiki dituzte.

Ondorioz, kontzientzia deus ez da, axal bat baizik. Bergsonek du adimenaren hotza baz-tertu, asmoak baitu bizia ulertzen. Bazekien ere Etienek, bere maisuaren itzalak ahantzirik, Bergson, biziaren azken uneetan, fede katoli-koari hurbil zegoela: «Bergson iragan da baratxe-baratxe (poliki-poliki) sinheste hor-tarat». Erran izan du ere Bergson, Frantziako intelligentziak baztertu ondoan jalgiko zela egun batez ilunpetik eta hori gaur gertatzen ari da. Bazekien ere, seguruenik, Bergson arras aditua zela politiko arazoetan eta kon-kretuki misio ofizialak bete zituela filosofoak, bereziki 1917an, Ameriketara joan zelarik, Wilson ikusi beharrez, European sar zedin, gerla egiteko.



Villa-Pia lizeoko ikasle batek 1960-61 ikasturtean egindako argazkia



Villa-Pia lizeoa Baionan

Mundua, Europa

Erraiten ahal dugu, oker handirik gabe, Etien Salaberri politikan sartu dela, intelektualki baina barna, ja berrogei urte zituela. Soldadu zelarik, gerla aitzin, Alemanian, hango baserrietako bazter aberatsek estonatu eta harritu zuten eta konparaketak egin zituen sorterriko etxalde txikiekin. Bere sorterrian, eskolan, Seminarioetan munduaren ikuspegi berezi bat murtxatua eta xurgatua bezala zeukan, iduriz teorien eta sinestearen gerizapean oinarrituak. Bigarren gerla mundialak bortizki inarrosiko edo astinduko du, sortuko zaio zinez kontzientzia politikoa. Mila aldiz aipatu duen Stalag IV presondegian hasi da egiazki gizakia



Alemanen kontrako gerran, soldadu

ezagutzen, ulertuz, gerla zela eta, gizakia giza-kiarentzat otso dela: zenbat aldiz errepikatu ote du, gero, Uztaritzeko Seminario Txikian Terentzio delako poeta latinaren: «Homo homini lupus»?

Baina Alemanian ez du denbora galdu eta erranen du ez dela enoatu edo aspertu. Sufritu du baina aberastu da, holakoetan giza-ki argi eta sentibera bati maiz gertatzen zaion



Gerran ibilitako heletarrak

bezala. Han ziren intelektualek Unibertsitate bat antolatu zuten, Salaberri zeukatela erre-tore gisa. Hango eta orduko harat-hunatak, atsegabe eta atseginak kondatzen ditu. Bakardadea, kalakak, solasak, gai intelektua-lak, gatazka goxoak, berak eman mezak, horiek oro aipu. Gero ohartu da, eta erran du, espazio eta denbora haien barruan dituela bildu bere indar-ideiak, biziaren gidari, fedea-ekin. Orduan ere ohartu euskalduna zela. Hona zer dion: «Alemania zolan ohartu naiz odolez eta mintzairez euskaldun nintzala, Euskal Herriari zorretan nere izaitearen itxu-ra bereziaz».

Argitze hori, ikusiko dugu, Etienen baitan, su bat bezala hedatuko da. Anartean, beste bi

idei, bi errealitate sortzen zaizkio Stalag IV delakoan: Europa, Bakea. Aldaketa izigarriak ari dira gertatzen Europan. Errusia eta Alemania elkarrekin dira, badaki Etienek eugenismoa gauzatzen ari dela. Ez du ulertzen eta onartzen Europako kristau demokraten arteko borroka. Bere ideien laboratorio bat bezala bilakatuko zaio preso filosofoari Alemaniako egonaldia. 1946an hasiko du beraz 35 urte iraunen duen kazetari lana. Ekainaren seian «Frantzia eta Alemania» titu-lutzat daukan artikuluan idazten du: «Gerla hau izan da ondarrekoaren ondoa: jeus ez da bururaturik». Eta nola ulertu Europako nazio-ak bakoitzak bereari lotzea? Denak elgarri so,

barrandan, fidagaizkor, jelos. Europa erdiko nazio txiki eta flakoei doakio Etienen arta: orduko Txekoslovakia, Austria. Tito goresten du, Errusiari oldarturik, baina badu nahiaren araberako indarra? Laster errepikatzen eta beretzen du printzipio absolutuaren formula: «Esperantza europeanoa da». Nahi du Europak bere armada ukan dezan eta Frantzia da egitasmo horren aurka bozkatzeko duen nazioa. Frantzia zaio Europako erresuma atzerakoia. Europa bilakatua zen haren baitan ideal absolutu bakarra kasik, erranez adibidez: «Europako batasunak ditu elgarretaratuko Rusia eta Amerika».

Bidaia nekaezina zen eta izan da Alemania, Espainia, Portugal, Suitza, Italia, Ingalaterra, Errusia, Txekoslovakia (hau *Nazioen Kristoa*), gero Egipto, Mexiko, Japonia, Peru lurralde eta herrietan. De Gaule zuen etsaienik handiena, hemeretzigarreneko ideologo eta frantses abertzale atzerakoia zelakotz, demokristau progresisten ehorzle. Horiek hola amets batek, esperantzak berotu du une batean: 1968ko maiatzan. Gaztekin zen Etien, haiekin maiz mendizale, eskautekin bereziki: hila-bete hartan loriatu zen Salaberri utopista, Frantzia zaharkituaren «erredikalismo arrazionanista» malinduak, ahulduak, porrot egina zuen eta erdaraz errepikatzekoa da erranaldi ederra: «La jeunesse du monde est mue par l'enthousiasme».



Ustaritzeko seminario ttipia



Gerrako oroigarria, urontzia

Euskaldun izaera

«Gerla aintzinean ez nakien Euskalduna nintzala» (*Ene sinestea* 174 or.). Azken kapituluan saiatuko gara zer den Salaberrirentzat euskaldun izaitea esplikatzen, pertsonaren barruan sartuz ahal den araberan, baina hemen arazo horri buruz ideia politiko zenbait laburzki aztertuko ditugu eta ere egintza batzuk aipatuko. Heletako eskolan sartu zelarik, 6 urte zituela, errientak galdegin zien haurrei: «Zer zirezte ziek, Euskaldunak ala Frantsesak?» Nik dudarik gabe: «Frantsesak!». Zer gertatu zaio beraz Etieni, zerk inarrosi du emeki-emeki bere herrirat itzularazteko, ez dituela halere ez Frantzia ez Europa ahanzten? Funtsean testamenduan ezarria zuen bere hil-kutxan hiru banderak nahi zituela. Urrundik eta urrunetik dator Etien Salaberriren «abertzaletasuna». 1937ko uztaila-buruileko *Gure Herrian*, «Zer da eskualdun izaitea» titulupean idatzi artikuluan aipatzen ditu lurraren amodioa, lurraren bertutea eta honela mintzo da «Lurra maite ez duena usu bilakatzen da erdi-jaun feiries, erdi ergel... Eskualdun izaitea da, Eskual-lur, mintzaire, fedearen bihotz guziz maithatzea». Betiko arketipoekin darama biziaren lehen zatia, belaunaldi haien gehienak bezala, funtsean.

Gero jautsiko bezala zaio berak aipatzen duen Copernic-en araberako iraultza: Alemanian asmatu aurkiberria, herrirat itzulita analizatuko du, sakonduz, minaren minarekin. Jakitekoa da, ezagutarazi beharra gure gizo-

nak 1970eko uztailaren 30eko *Herria* astekarrian idatzi duena, erdaraz eta honela itzuli dudana: «Ainitz pairamen iragan izan behar ditut onartzeko beste batzuen artean Euskal Herriko seme bat nintzela eta eginbidez egokituko». Idatziak zituen, gerla aitzin, erdaraz eta nasaiki, artikululu luzeak, euskal nortasunaz, euskaldun arimaz, Euskal Herriko bestaz, fedearaz, ohiturez, bertsolaritzaz, kantuaz etabar. «L'homme basque» deitu *Gure Herriako* artikululu batean, eta hori 1950ekoa da, aipatzen du euskaldunen pentsamendua, azpimarratuz euskaldunek daukaten «Pentsamenduaren gustu primitiboa».



Salaberry, 29 urteko apaiz gaztea, 1932ko argazkian



Lafitte eta Dournier Sarako alkate zenarekin

Ekintza omen du maite euskaldun pragmatikoak. Hau da, Salaberriren ustez, euskaldunaren filosofiaren formula, erdaraz errana Etienek: «Savoir par devoir, afin de savoir pour pouvoir». Hau da, eginbidez jakin, ahal izateko jakiteko. Moralaren eragina, erlijioaren pisua, jende xehearen apaltasuna, halako enpirismo natural batek ote dute euskaldunen filosofia sortzen? Eta beraz ideia eta eraikitze abstraktuak beste-entzat daude, estudiatu dutenentzat?

Pilota, dantza, kantua, bertsolaritza ere maite izan ditu Salaberrik, eta goretsi, azken kapitulu- luan azpimarratuko dugula atximendu hori. Baina, politika arazora itzuli beharrez, aipa ditzagun gertakizun eta gogoeta zenbait, bere azken hogeitaz urteak inarrosi eta artetan alaitu dituenak. Alemaniako lurretan ikusi eremu zabal eta aberatsek Euskal Herriaren ahuleziak nabaritzen dizkio, ikusten du baserriko gazteriak herrixkak uzten, hirira edo Ame-

riketara partituz, ez balin badira gazte batzuk herrestan, arrastaka, egoiten etxean, lotsatu arte. Senditu du barna euskaldunaren goibeltasuna, bakardadea, erranez Beñati euskaldunak ez balitu eta ostatua eta konfesioko aitormena: «Frangotan bere buruaz bertze egin lezakete ...barnerat itzuliak» direlaketz. Erran du ere: «Bakardadetik eskizofreniara, urrats soil bat».

Baina ateratzen da pentsalaria liburutegitik eta Baionako karriketan ibiltzen hain maite dituen gazteekin. Adiskide Beñati idatzi liburuko hirugarren gutunean erraiten du: «asko lerrokada egin ditiat nihaurek Baionako karriketan gaztekin batean, gazteak bidatzale. Aldi batez gizon behatzaile batek deitzen nu bazterrerat eta erraiten, begiak pinpalet: Zu apez, ez zirea ahalge hola karrikaz karrika ibiltzeko? Bederen ken-azu hori (Erakusten daitak ene papoko apez kurutzea)».

Bortizkeriaren kontra

Politika eta ekonomia ez zituen bereizten: bazekien Bokaleko lantegien izigarriko krisia ez zela soilik diru eta lan falta bat bakarrik. Ibili zen han ere, langileen erdian eta hona zer idatzi zuen orduan: «Heletako laborariak Bokaleko langileak pairatuak kolpaturik izan behar du». 1968ko maiatzaren mugimenduak zirela eta ateratu zen liburuaren atarretik, ikasleek bultzaturik, baina joan zen, bakarrik, ala bi apez erakasle ziren? Eta hona abertzaleak: minbera gauzak. Errana dugu, berak aitorturik, Etien haste-hastetik kultur frantsesean hazia izan dela, Frantziaren historian altxatua. Gero, baina urteak eta urteak pasa zirela, honela mintzatu da Salaberri:

Frantzian ikasi diuk Frantziako ixtorioa, Parisetik irakurtu ixtorioa. Espainian ikasi die Espainiako ixtorioa. Itze batek kanporatu dik bertze itzea. Gelditu gaituk gure ixtoriotik umexurtx. Gelditu gure erroak ezin jauts behera gure arbasoen izaiteraino, herri osoaren orroitzapen osoa leize ziloko ilunbeaz kukutua.

Lerro horiek idatzi dizkio Beñat adiskideari, zenbat ilabete zendu aitzin baina anarten borrokatu izan behar izan zaio Etieni bere baitan, urrunago aitortuko duenaz. *Enbata* mugimendua sortu delarik izitu da, iduriz. Aldaketa gaitza ari zen hor sortzen halako baretasun hilkor baten sabelean. Ideiak plazan zeuden, bazterrak, jendearen kaskoak eta



Arreba Ameli, seme ttipiarekin

bihotzak inarrosiz. «Jeunes Turcs!» botatzen die eskualdun apez filosofoak *Enbata*ko buru beroei. Jende onak bazuen beste kalifikaziorik. «Enbata zikinak!» Baina hor zen behar zelarik, haren iduriko joan behar zelarik, hala nola gose greban zeuden abertzaleen sustengatzera, gehituz haatik, beltzuri ezti batean: «Ez gal fedea!» Eztitasuna aipatu dut, goxoa zen Etien, erdaraz erran nezake: «Un utopiste naif et doux», ameslari xalo eta gozoa.

Eta beraz bortizkeriaren etsai absolutoa zen, beldurtzen zuen indar irrazionalak, jakinean haatik ideien tresna azkarra armada dela, hala nola Europak eraiki izan behar zuena, gerla

ondoan. Gertatu zaio bortizkeriaren aurka eta beraz bakearen alde manifestatzea eta abertzale askok kritikatu dute orduan: apaiz baketiarrak *Pacem in terris* entziklika zuen bere engeiamenduaren eta jokabidearen gidari. Ez zen erraza eta sinplea izaiten ahal honelako gizon baten egoera eta jarrera.

Hona zer dion *Enbata*ko militanteek eta haien ideologiaz, *Herrian* idatzi artikulu batean, 1972ko martxoaren 23an: «Ez ados izaiten ahal da *Enbata*ren tesiekin, baina Euskaldun bat mehatxatua delarik, Euskaldun guziek bat egin behar dute». Bortizkeriaz Salaberrik erranaz bestalde, hitz hauek ere, 1980ko *Herriaren* zenbaki batean idatziak, ezagutze-koak dira:

Higuingarria zauku bortizkeria. Bortizkeria baten kentzeko, behar zaio beste bortizkeria jalgi. Biak haizatu batean Kortzian! Baina ez zen bortizkeria sortuko ez balu bortizkeriaren pean Parisek atxiki Kortzia.

Hegoaldeari buruz zer? Izan da, Iparraldetik, joera mota guzietarik. Bi Piarres, Lafitte zena, eta Xarriton denak, balukete kondatzekorik Iparraldeko anaien jokabideaz. Etien Salaberrirenaz, bi gauza bederen aipatzekoak dira: Alemaniara joan aitzin eta gero eskualdunogari «ezin sortuz intzirika» ari zanez arranguratu izan zen sutan zelarik Espainia, suntsitua Gernika, eta eroria Bilbo. Azpimarratzekoa

beste «jestu» bat, Iparraldean erraiten dugun bezala: 1960an gara: Hegoaldeko 339 apezek agiri bat sinatu zuten, erranez Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Iruñeko apezpikuei giza-kiaren deretxoak ez zirela errespetatuak Francoren menpe zaudelarik denak eta zapaldua libertatea. Apez zenbait zigortuak izan ziren eta Etien Salaberrik (artetan haserre sumindu batek hartzen baitzuen) idatzi zuen *Herrian* artikulu bat, erranez behar zutela Estatu zapaltzailean libertatea defentsatzen zirenek *Libertatearen urrezko luma* erdietsi. Eta fermuki kondenatu zuen Elizaren isila.

Ordu haietan Iparraldeko apaiz guti mintzatu-ko zen honela. Funtsean *Ene sinestean* idatziko du, gerla aitzineko denboretaz ari dela: «Kasik denak Pétainen alde ginen». Eta gero kristau-demokrata izaitea bera ezkertiar iraultzale izaitea zen, anitz apaizentzat. Pentsa! Etienek ja De Gaule ezin soportaturik eta holakoak idatzirik, zer estimu zeukan anaien baitan! Bakardadea, trufen ondorio artetan? Ez ote da erraiten ahal Etien Salaberri abertzalea zenik, eta badugu kalifikazio horren definiziorik? Baina segur gure gizon samurrak Damasko bidea hartu duela, berdin bera ohartu aitzin. Hortakotz, arazo politikoa utziz, Salaberriren euskaldungoak merezi du aipamen berezi eta betan orokorra, gizonarena.



Bazkalondoko solasaldian adi, Labegeriren ondoan (1976-06-02)



Gazteekin mendira



Predikua egiten



Mixel Labegeri Europazalearen ondoan

Euskalduna

Etien Salaberriren irudi zuzen, egiazko erretratu bat egin nahiz, zein argazki bildu, zein oroimen begira genitzake? Nor da azkenean bizian zehar hoinbeste ideia, hoinbeste sentimendurekin ibili den Heleta Garrako seme apaiza? Ustez dakigunaz zer erran? Lehenik, dudarik gabe, haren fedear hitz bat: «Ene sinestea xurgatu dut Uhaldeberriko Dominika amanoren esnearekin» dio bere lehen liburuan (157 or.) errepikatuz ondoko orrialdean: «Euskaldun eta fededun, Jaungoikoa eta lege zaharra».

Bururadino, berak dioenez, atxiki du fede hori, aipatuz bereziki otoitzaren



Heletako «Besta Berri»ko dantza

amodioa eta Ama Birjinari buruzko debozioa. Haurtzaroko gauzak begietan, zentzu guzietan, bihotzean, dauzka gorderik, altxor ezin prezatuzkoa: kondatzen dizkigu arto biltzeak, urde hiltzeak, ogi-joiteak (mekanikak) udako belar eta larrazkeneko soroak, urriko iratze-mozteak, gisu-labeko edo karobiko lanak. Eta haurrak mustupilka eta itzulipurdi-



Baigura mendi maitagarria

ka non nahi. Gero dira hustu etxeak, min zuen haurra izana zen euskaldunak.

Nola ez aipa bere sorterrria, Heleta? Ez zuen saltzekoa Heleta! Eliza lehenik, han eta ere etxan piztu baitzitzaion apaiz egiteko deia. Eta Baigura, Heletatik ikusten dena heletarrena baita, kasik osoki!

Neguan dago Baiguran elhurra

Zerutik zilhar jautsi...

Sorterrrian bazituen beste bi pasio: Besta Berri eta Santa Katalinak, erran nahi baita

zaldi feriak, azaroaren 25ean. Ez zituen huts egitekoak ez bat ez bestea. Asmatzea aski da Etien poetaren lirismoa, poeta baita ere Salaberri. Besta Berriren elizkizun ozen, koloretzu, kantatu eta eliza barnean berean dantzatuek loriatzen zuten herritarra. Ez zuen bere buruari erraite beharrik Beñat adiskideari igorria: «Herriak herrian herritartuko hu». Santa Katalinetan ikusten zuen Heletako plaza mukurru betea, mundu osoa han balitz bezala, Europaren parte eder bat bederen!

Berezitasun miresgarriak

Sorterritik jalgi eta, han bezala, hor zituen Etienek Herriaren berezitasun miresgarriak: mintzaira, pilota, kantua, bertsolaritza, dantza.

Kantua maite du, herritarrena, baina bereziki elizan sakratuaren zerbitzari delarik, fedearekin bat eginez bezala. Dantza? Baita ere, baina izan bedi alai, arin, garbi. Pilota! Entzun dezagun:

«Pilota, Herriaren gatz! Goibel eta ilhun litake Eskual-Herriko zerua, goibel eta murriz Eskual Herriko etche mulzoak, ez balire ikusten plaza-gaingan haurren edo gazten jauziak. Ez balire aditzen plekarien kalapitak, pilotarien joak errebotaren kontra, ezkil marthets

baten danga idorchkak iduri» (*Gure Herria*, 1960ko azaroa).

Maiz mintzatu da eta idatzi du bertsolaritzaz. Hitzaren jabe, hitzaren jokolari trebe, poeta goiargitua delakotz bertsolaria. Baina: «Apezak bere bokazionea bezala, baditu bertsulariak bere dohain eta bokazionea. Baditu, apezak bezala, bere eginbideak». Hitzaren podere izigarriak du hemen apaiza honela mintzarazten. Zein dira beraz bertsolariaren eginbide haiek? Hona non Salaberrik aipatzen dituen Jaun Goikoa, Egia, Eskual Herria, San Agustin, San Frantses... Apaiza da elizan mintzo den ministroa, zerbitzaria, bertsolaria plazan kantari bereter laikoa. Poeta egiazale, ez debrukeri erraile.



Heletako feria, Santa Katalina egunez



Heletako Besta Berri, Santa Katalina egunez





Filosofiako ikasleekin, 70-71 ikasturtean

Aburu horien iturriak fedean oinarrituak daude eta ere hitzari zor diogun errespetuan. Eta beraz zer eskuaraz? Gure hitzez? Errana digu ja Etienek amodio hori. Bi ohar halere. Bergsoni buruz idatzi duelarik euskaraz *Jakinen Filosofiaren kondaira* Axular goraipatzen du erranez: «Tenor litake itzul gaiten Axularren ganat. Ez dezagun utz bakarrik». Harro dago, iduriz, Etien filosofo euskalduna, herriko mintzairaz ariko baita Bergsonekin filosofia eta zuhurtziaz (ez zituen bereizten). Mintzaira, berba: hona zer idatzi duen adibi-

dez *Eskuara* titulupean 1954ko azaro-abenduaren *Gure Herrian*:

«Haste-hastean bazen Eskualdun mintzaira. Haste-hastean baziren Eskualdun hitzak. Haste-hastean, zure arbasoek, hain ederki bazabilaten hitz Eskuara.»

Eta lan hau bururatzeko poeta eta olerkaria aipatuko dugu. Hemen ere haren mintzoa entzuten dugu, Beñat adiskideari erraiten diola: «Baduk olerkari bat gordea euskaldun guzien bihotzean. Baduk olerkari bat, erbia ziloan bezala lo, euskaldun guzien bihotz bar-



Filosofiako ikasleekin, 72-73 ikasturtean

nean. Olerkariak bertzek ikusten ez dituztenak ikusten ditik, bertzek aditzen ez dituztenak aditzen». Orrialdea itzul eta hitz hauek: «Izpi bat olerkari ez dena ez duk izanen nihoiz ikertzale, jakintsun, laborari, artzain, idazle, erakasle ala saildu».

Poeta zela erran dugu Etien Salaberri. Uzten diogu hitza: 1955eko uztailaren *Gure Herrian* idatzi duen «Zazpiak bat» deitu poeman bertso hauek, besteen artean idatzi zituen:

«Zertako gure arbasoek eman zuten,
Eskual Herriko atxean, barna zilhatu-
rik: Zazpiak bat!

Ez zezaketen ahantz Lapurdi: lur ala
gizon denek dutelakotz lan, hezur arau
tole haragi.

Ez zezaketen ahantz Bache-Nabarre,
phentzeak garbi bezain emaiten baitute
hango ardiek esnea churi.

Ez zezaketen ahantz Chubero: Eskual
mendiak haren chirula eskasean, eman
bailezake igande gabeko murriz astea.



Omenaldiko liburuan Etxebeltzen marrazkiak



Hil ondoko oroigarria

Ez zezaketen ahantz Bizkaia: lanean ari unhatua, lanho lodi bat labetarik zirimola bafadan.

Ez zezaketen ahantz Nabarra: Frantses-
-Etchavirikoaren trakako, haren odoleko han baitira jendeak bethi.

Ez zezaketen ahantz Guipuzkoa: itsasoa, oihan pherderen oinpean, zelhai ikus ahala ordoki pherdea.

Ez zezaketen ahantz Alaba: eguerditan iguzkiaz errekichkailia, ilhuntzean iguzkiaz urdin aphaindua.»

Zazpi euskal eskualdeetako euskaltzaleek 1902an sortutako Euskaltzaleen Biltzarrak, merezimendu osoz, ohoratu zuen Etien Salaberri Heletan, bere sorterrian, 1979ko urriaren 16an.




«Esker mila, Etienne Salaberry, So-egile» Emile Larrek idatzia

«Zazpiak bat» titulutzat duen okerkia idatzi zuen Etien Salaberrik *Herria* astekarian. Hona lehen eta azken bertsoak:

Nehor ez baita zutaz orhoitzen,
Nehor ez baita zutaz urrikaltzen,
Baitzira, iduri piltzar, bazterrerat utzia,
Lehengo lehengoan orhoitzapen, bide,
irringarri bitzia,
Trufatua,
Ostikatua,
Zangopilatua,
Bai Ipar aldetik,
Bai Hego gunetik.
Baitira etxeak suntsitu,
Irrintzinak gauaz ixildu.
Nigar egiten dut zutaz, Eskual Herria:

Ene haur bihotzaren gainean dorpe dago
zure hil harria.
Bainan ez, lagunak,
Bainan ez, haurrideak,
Ez izan ahalge,
Ez izan herabe
Ithoko du gaua iguzkiak,
Hostatuko dira zazpi erroz lotu Eskualdun
mende berriak.

Bakardadeak, amets bete gabeen zauriek,
zahardadeko buru nahasmenduak, hots, erita-
sunak eta abarrek bere buruaz beste eginara-
zi dioten Etien Salaberrik, azken agurra eman
aitzin, utzi digu esperantza: «Ithoko du gaua
iguzkiak, hostatuko dira zazpi erroz lotu
eskualdun mende berriak».

A photograph of a handwritten signature in black ink on a light-colored, slightly textured paper. The signature reads 'Etienne Salaberry' in a cursive script. Below the name is a long, horizontal, slightly wavy line that serves as a decorative underline.

Salaberriren sinadura

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Ameli Salaberri*
- *Ouret apaiza*
- *Uztaritzeko Seminario Ttipia*
- *Villa Pia lizeoa*
- *Heletako herria*
- *Xipri Arbelbide*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-1987-4 (Lan osoarena)
84-457-1988-2

L.G.: S-